

LANDARBASO ABESBATZA 2013

Lehendabizikoz lehendabiziko! ¡Por primera vez primeros!

Landarbaso Abesbatza



Zeinek esango zien Landarbaso Abesbatzako kideei 20 urte baino gehiagoren ondoren 2013a hain urte emankorra izango zela...

Landarbasoren helburuetako bat inguru gazteak formatu eta talde batean abesteko aukera ematea izan da, ilusioz eta gogoz beterik. Hasierako funts hori mantenduz azken urtean generazio aldaketa bat eman eta 10 gazte baino gehiago berri taldean sartu eta gogor lan egin du taldeak.

Horrela, 2013 honetan, abesbatzak nazioarteko lehiaketa batean 1go saria lortu zuela aipatu beharra dago, taldearen historian izan den lorpenik garrantzitsuenetako baita eta egun Gipuzkoa zein Euskal Herri mailan dauden abesbatza askok ezin baitezakete esan gauza bera.

2013 urtean egindakoak dira 1go saria, 3. saria, kontzertu eta ziklo ugaritan parte hartzea Donostiako Musika Hamabostaldia kasu, etorkizunearan diska bat plazaratu ahal izateko pistak grabatzea, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak antolatzen duen Matinéetan parte hartzea, Super Amarak Kursaal Auditorioan antolatzen duen kontzertu benefikoa eskaintzea eta abar dira Landarbaso Abesbatzaren ekintzak.

LLANGOLLENEKO NAZIOARTEKO LEHIAKETA (GALESEN)

2001. urtetik aurrera Landarbaso Abesbatzak nazioarteko abesbatzen lehiaketetan parte hartzeko apustua egin izan du, horietan sari ugari lortu izan dituelarik. 2013an taldea Llangolleneko, Galeseko Nazioarteko Lehiaketa batean izan zen. Esan beharra dago berau dela European dagoen abesbatza lehiaketarik zaharrena.

Horrelakoxea izan zen taldearen bidaia:

Uztailaren 10a

Landarbaso Abesbatza eta taldearekin batera joaten den laguntzaile taldeak bidaia egin zuen Londresera eta handik Galesera, Llangollenera. Jakinik Europako abesbatza lehiaketarik zaharrena dela eta tradizio handikoa dela, eta 200 abesbatza baino gehiagoren artean izan zela aukeratu Landarbaso... erronka handiari ekiteko prest zihoan taldea.

Uztailaren 11a

Landarbaso Abesbatzak lehendabiziko modalitatean lehiatu zuen, Folklorean. Lehiaketa

honetan euskal konpositoreen obrak indar eta ilusio bereziz abestu zituen taldeak. Horiek izan ziren Xabier Sarasolaren *Hator Hator*, Jesus Guridiren *Akerra Ikusi Degu*, Mokoroaren *Neure Maitena* eta Julen Ezkurraren *Aritz Adarrean-Kattalin*. Emaitza ezin hobea lortu zuen Landarbasok, izan ere munduko leku desberdinetako folklore berezien aurrean taldeak 3. saria lortu zuen.

Uztailaren 12a

Abesbatza Llangollen hiriko lekurik garrantzitsuenetakoan, bertako elizarik zaharrenean kontzertua eskaintzera gonbidatu zuen antolakuntzak. Bertan bere lana ahalik eta jende gehienari iristaraztea araztea zen asmoa, eta aipatu beharra dago eszenatokia Belgikako ahots zurien abesbatza garrantzitsu batekin partekatu zuela.

Uztailaren 13a

Landarbasok bigarren modalitatean hartu zuen parte goizean, Abesbatza Mistoen atalean. Bertako maila oso altua zen, nazioarteko abesbatza ospetsuak baitzeuden, baina Landarbasok gogotsu eskaini zuen bere programa ondorengo

obrekin: Gutierrez Padillaren *Deus in Adiutorium Meum Intende*, Julio Dominguezen *Deus Qui Illuminas* eta Eriks Esenvaldsen *Stars*. Urte osoan egindako lanak bere fruituak eman eta Landarbaso Abesbatzak bere historian lehen aldiz 1go saria lortu zuen.

Lehenengo saria lortzeak egun horretan bertan arratsaldean, Nazioarteko Lehiaketa honetako beste 4 talde onenekin batera MUNDUKO ABESBATZARIK ONENA lehiaketan parte hartzeko aukera ematen dio. Arratsaldean kategoria guztietan munduko abesbatzarik onenekin lehiatzen du eta 4000 pertsonen aurrean abesten du.

Uztailaren 14a

Landarbaso Abesbatzak Abesbatza Mistoen Sailean 1go saria eta Folklore Sailean 3. saria dituela, etxerako bideari ekin zion, urtez urte lanean gogotsu eta ilusioz jarraitzeko indar berrituarekin.

